

Bideratzaile berriari esker, zuntzarekin bezain azkar nabigatu daiteke ia-ia

Wi-Fi 7 jarri du martxan Euskaltelek, lau aldiz azkarrago nabigatzeko

- *Wi-Fi 7k abiadura eta konexio-ahalmen handiagoa eta itzarote-denborarik eta etenik gabe nabigatzeko aukera ematen ditu*
- *Nabigazioa azkarragoa eta arinagoa da, banda-zabalera handia eskatzen duten eta aldi berean konektatutako gailu asko dauden inguruneetan batez ere.*
- *Jokoetarako eta streamingerako aukerarik onena da, abiadurari eta konexio egonkor eta atzerapenik gabekoari esker.*
- *Telekomunikazioen euskal operadorea abangoardian dago merkatuan, eta bere bezeroen konektagarritasuna hobetzen jarraitzen du, Wi-Fi 7ren bidez, kasu honetan.*

Derion, 2024ko urriaren 22an.- [Euskaltelek](#) (MASORANGE taldea) **Wi-Fi 7 bideratzailea** merkaturatu du, etxe eta negozioetarako haririk gabeko teknologia berri bat, etorkizuneko aplikazioei atea irekitzen dizkiena. Berrikuntza honi esker, telekomunikazio-merkatuko abangoardian kokatu da euskal telekomunikazio-operadorea, **10 Gb/s**-eraiko zuntza (XGSPON), **Wi-Fi 6E** eta **5G Stand Alone (SA)** merkaturatu zituenean egin zuen bezala.

Balio handiko paketeetan eskainiko du **Euskaltelek** Wi-Fi 7, eta ez du aparteko kosturik izango. Lehendik bezero direnentzat nahiz bezero berrientzat egongo da eskura eskaintza berria, Netflix eta Max barne hartzen dituen Infinity paketea kontratatuz gero.

Abiadura ikaragarria, ahalmen handiagoa eta konexio egonkorragoa

Besteak beste, datuak transmititzeko **abiadura handiagoa** (banda-zabalera handiagoa), **konexio-ahalmen handiagoa** (aldi berean gailu gehiago konektatzeko), **energia-aurrezpen** handiagoa (efizientzia) eta **segurtasun** handiagoa eskaintzen ditu Euskaltelen WiFi 7 bideratzaile berriak.

Wi-Fi 7 estandarrari esker, **30 Gb/s**-rainoko **abiadura** lor daiteke, aurreko wifiaren— Wi-Fi 6aren— **halako lau**; halaber, **mota guztietako gailuak aldi berean konektatzeko aukera** ematen du, sarearen pilaketarik, itzarote-denborarik (atzerapena), geldialdirik edo etenik (*bufferinga*) gabe, banda edo lotura ugari erabiltzen baititu aldi berean.

Hori dela eta, WiFi 7 bideratzailea ezin egokiagoa da, adibidez, onlineko jokoetarako, urruneko medikuntzarako, konexio asko behar dituzten lan-inguruneetarako (bulegoak, gestoriak...), 4K eta 8K-ko streaming bidezko edukien transmisiorako edo erantzun-denbora oso azkarrak (latentzia txikiagoa), sendotasun handiagoa eta interferentziarik gabeko konexioa behar dituzten beste aplikazio batzuetarako.



Sagemcom Gpon Fast 5674 wifi7 ekipoa

Jokoetarako eta streamingerako aukerarik onena

Latentzia oso txikia denez, joko-esperientzia ezin hobea da eta konexioa oso egonkorra. Abantaila horiekin eta Wi-Fi 7aren bidez lortzen den abiadura izugarriarekin —zuntz optikozko kablearekin lor daitekeen abiaduraren antzekoa—, ezin egokiagoa da jokoetarako eta streamingerako (gero eta gehiago egiten diren jarduerak biak ere).

Eta, hain zuzen ere, merkaturatzen ari diren azken belaunaldiko gailuak, hala nola **Play 5** eta **iPhone 16**, bateragarriak dira Wi-Fi 7rekin.

Mediatek-en arabera, zeina teknologia horretako wifi *chipset* fabrikatzaile nagusietako bat baita, **itxarote-denbora % 80raino hobetu daiteke ingurune oso aseetan**, MLO (Multi-link Operation) transmisioaren onurei esker. MLOren beste onuretako bat da trafikoa banda batetik baino gehiagotatik bidaltzen duela, eta, gainera, gai dela horiek trafiko-motaren arabera antolatzeko: motelenak (2,4 Ghz) lehentasunezkoak ez diren trafikoetarako (posta elektronikoa, software-eguneratzea atzeko planoan) eta azkarrenak lehentasunezkoetarako, hau da, itxarote-denbora txikiagoa eta banda-zabalera handiagoa behar dutenetarako (bideokonferentziak, onlineko jokoak eta abar).

Hauxe adierazi du Jon Ander de las Fuentesek, Euskaltelen eta MASORANGEren Euskadiko eta Nafarroako zuzendariak: *“lanean jarraitzen dugu merkaturako azken estandarrekin gure bezeroen konektibitatea are gehiago hobetzeko, ahalik eta gehiena goza dezaten abangoardiako eta etorkizuneko telekomunikazio-zerbitzuez. Berritzen jarraitzeko etengabeko ahalegina egiten du **Euskaltelek**, eta, oraingo honetan, konexio-sistema ultralaster bat eskaintzen dugu, itxarote-denbora minimoa eta ahalmen handia eskaintzen dituen”*.